

2009-10-24

Ekainberri urteko Gipuzkoako laugarren museo ikusiena bihurtu da 40.000 bisitariekin

Ekainberrik ateak ireki zituenetik 40.000 bisitari izan ditu. Hori dela eta, proiektuaren urteurrenaren balorazioa 'oso positiboa' dela adierazi zuen atzo Alazne Olaizolak, Zestoako alkateak. Urtean zehar ikastoletako ikasleak eta familiak izan dira bisitari ugarienak, ikasturte garaian lehenak, eta asteburuetan bigarrenak.

Zentroak 3.300 biztanle izan ditu hilabetero eta fundazioak, 36.520 pertsona espero zituen arren, neguan egindako eguraldi txarrak aurreikuspenak aldarazi zituen. 'Kantidadea eta kalidadeak ez duela zertan zer ikusirik izan, bien arteko oreka bilatzea da neurtzeko elementu nagusia', aipatu zuen Maria Jesus Aranburuk, Kultura eta Euskara Diputatuak.

Gipuzkoako museo guztietatik laugarren postua lortu du Ekaingo erreplikak, Donostialdean aurki daitezkeen Kutxa Espazioa, Chidilla-Leku eta Aquariumaren hurrengoa da Ekainberri. 'Harro sentitu gaitezke urtebeteko ibilbidearekin nahiz eta lanean jarraitu behar dugun', aitortu zuen Aranburuk.

Ekainberrik herrian eragina izan duela aipatu zuen Olaizolak. Jendearen joan etorria nabaritu dela, alegia. Hala ere, herrian dagoen masa kritikoaren iritziz 'jendetza' hurbilduko zela uste zuten eta 'ez dela horrela izan', azaldu zuen alkateak. Ekaingo erreplikak bisita bakiotzeko 20 pertsona har di-tzake eta horrek, jende gehiegi etor-tzea 'mugatzen' duela aipatu zuen.

Bisitarien aldetik, Euskal Autonomi Erkidegokoak dira gehienak, 'eguna pasatzeko aukera bikaina baita', adierazi zuen Ekainberriko gerenteak, Juanjo Aranburuk. Udan aldiz, tipologia zerbait alda-tzen da eta Madril, Katalunia eta Frantzia inguruko pertsonak dira historiaurreko museoa ikustera gerturatzen direnak. 'Gakoetako bat' ahoz ahozko zabalkuntza izan dela ere aitortu du.

Satisfazio maila 'oso altua' dela aipatu du bertako gerenteak. Publikotik %58ak egonaldia oso ona izan dela adierazi du eta %38ak ona. Horrek, 10etik 8,47ko satisfazioko emaitza eman du.

'Ekainberrik urtebete besterik ez du egin, ume txiki bat da oraindik eta berehala hasiko da lehen urratsak ematen baina oraindik, eskua emanda joan behar du', aitortu zuen Olaizolak.